

Heziberri 2020




Zer da heziberri 2020?

Heziberri Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza egitasmoa da eta bere helburua Hezkuntza Legea sortzea da. Lehen fasean, Marko Pedagogikoaren ezarpenarekin batera sareen finantziaziorako eredu finkatu zen. Bigarren fasean, aprobatazear dauden dekretuek, kurrikulumak zehazteaz gain sistemaren kudeaketa eta antolaketa arautuko dituzte. Azkenik, 3. fasean Hezkuntza Legea argitaratzea izango litzateke.

LOMCE-ri aurre egiteko jaio zen proiektuak LOMCE ezartzeko balio izango du.

Heziberri zein LOMCE hezkuntza politika neoliberalak ezartzeko eta desberdintasunak areagotzeko tresna paregabeak dira. Horra hamai-ka arrazoi Heziberri erretira dezaten eskatzeko:



Zeintzuk dira heziberriren ondorioak?

1 Lege pribatizatzailea da

Heziberri 2020 ekimenak sare pribatuko ikastetxeen aspaldiko eskaerei ematen die erantzuna: sare publikoa eta pribatua berdindu nahi ditu, guztiona dena, Publikoa, lehenetsi gabe. Ondorioz, ikastetxe pribatuek finantziaketan eta beste eremu askotan lortzen dituzten abantailez gain, sare publikora enpresa eta fundazio pribatu askoren sarrera ahalbideratzen da, zerbitzu Publiko asko pribatizatuz.

2 Eskola publikoa eta eskola komunitatearen parte hartzea erasotzen ditu

Ikastetxeen proiektu garrantzitsuena Autonomia Proiektua izango da. Honek besteak beste, zuzendaritzaren esku uzten ditu langile eta baliabide ekonomikoen kudeaketa. Ikastetxearen diru sarrerak ere honen arabera izango dira. Ordezkaritza Organo Gorenek ez dute honen onarpenean zer esanik izango.

3 Ekitatearen aurkakoa da

Ikastetxeek izan beharreko “autonomiaren” izenean, kokagunearen arabera, ikasleen “irteera profil” ezberdinak ezarriko dira. Den-denek errealida berbera pasa beharko dute.

4 Adoktrinatzatzailea da

Familiek ikastetxe batean beren seme-alabak matrikulatu ahal izateko, zuzendaritzak idatzitako “ikastetxearen hezkuntza printzipioak” onartu beharko dituzte. Ordezkaritza Organo Gorenak ez du zer esanik izango gai honetan. Bestalde, LOMCEk berak derrigorrez eman beharreko gutxieneko erlijio orduak baino gehiago ezartzen ditu Heziberri eta arlo honen kurrikuluma zein materiala eliza hierarkiaren eskuetan uzten ditu, Hezkuntza Sailaren kontrolik gabe, LOMCEk esplizitoki ala agintzen ez badu ere.

5 Hezkidetzak ez du ahalbideratzen

Aldeko adierazpenak egin arren ez du inolako neurri zehatzik proposatzen. Horrez gain, irizpide segregatzaileak erabiltzen dituzten ikastetxeen finantziak bermatzen du.

6 Eskolan eredu gerentziala ezartzen du

Ikastetxe Publikoei soilik, autonomia proiektuen emaitzak alderatzeko errendimendu adierazleak ezarriko zaizkie. Besteak beste, ikasleek kanpo ebaluazioetan lorturiko emaitzetan islatuko da. Emaitzen “kontu ematea” klaustroaren ardura izango da.

7 Ikastetxeen arteko eredu lehiakorra ezartzen da

Aukera berdintasuna eta ikasleen “irteera profil” komunak bilatu beharrean, eredu lehiakorra bilatzen da. Lehia honetan, ikastetxe publikoak galtzaileak izango dira.

8 Ez du euskalduntzea bermatzen

Ikastetxe bakoitzak euskara eskaera maila kokatua dagoen inguruaren arabera izango du. Alor honetan arazo gehien zituzten ikastetxei, legez, baliabide gehiago bideratu behar zizkien administrazioak, modu hortan aukera berdintasuna bermatuz. Hemendik aurrera ikasle guztiek ez dituzte izango lorpen adierazle berberak eta administrazioak ez du euskalduntzea bermatuko.

9 Hezkuntza eta kompetentziak merkatuen gora-beheretara egokituko dira

Bai LOMCE, bai Heziberri 2020-ren oinarriak *Rethinking Education* bezalako dokumentuak dira. Bertan, oinarriko kompetentziek “enplegaitasuna” dute helburu soilik.

10 Ez du hezkuntza sistema propioa eta justuago bat ahalbideratzen

Euskal Herria aukera berdintasuna bermatuko duen kalitatezko hezkuntza sistema publiko eta propio bat garatzeko aukera gabe geratzen da berriro ere.

